kalera noa ihesi

KALEJIRA **Trad./ Xabier Amuriza**

Gipuzkoako errepertoriotik hartutako doinua tradizionala da. Doinu hau Sakabi eta Egañazpi trikitilari ezagunek grabatu zuten lehendabizi. Urte batzuk beranduago Oskorri folk taldeak bertsio berri bat egin zuen Xabier Amurizaren bertsoekin eta aldaera hau ezagunagoa bihurtu da.



Jaikitzen naiz egunero
oilarrak jo ta gero, (bis)
lanetik eta lanera beti
nola ninteke hain ero!
Kalera aldegin edo
sartuko naiz gerrillero.

Lanez banago asea
ordaina ez da luzea, (bis)
mendi goietan egonagatik
hauxe da nire leizea
emaidazu guraizea
urra dezadan haizea.

Kalera noa ihesi
neure gurdi eta guzi, (bis)
ez naiz menturaz han ere ongi
ibiliko lehendabizi,
baina ez ninteke bizi
baserrian bezain gaizki.

Agur baserriko mendi,
hil arteko urkamendi, (bis)
hiltzeko bada ere zugana
berriro itzul banendi,
mundua ez dabil ongi
edo nauzu ero haundi.